



ikastolak



ARANGOITI IKASTOLA IRUNBERRI



Arangoiti Ikastolako ikasle taldeetako bat, bideojokekin jolasean.

Bideojokoak aukeran

BEHARREZKOAK AL DIRA BIDEOJOKOAK? ARANGOITI IKASTOLAKO IKASLEEK OSO ARGİ DAUKATE ERANTZUNA: BAI, NOSKI.

Testua eta argazkia Arangoiti Ikastola

Egin genituen galdera xume batzuk ekarri gaituzte gaurko gaira, bideojokoetara. Ikerketa txiki bat abiatu genuen eta lehenengo ondorioa ezin dugu ukatu, gure eguneroko bizitzaren parte direla eta gutxi edo asko denak aritu edo aritzen garel.

Zuen uste bideojokoak behar dira? Arangoitiko ikasleek argi eta garbi esaten dute baietz, behar direla, aurtengo negu hotz eta euritsu batean ez baldin bazara ateratzen kalera etxean goxo jolasteko. Arangoitiko ikastolako ikasleek uste dute oso dibertigarriak direla eta jolastu behar dela bideojokoetara.

Inketa txiki baten bitartez informazio zuzena jaso dugu 8 eta 12 urte bitarteko ikasleen artean eta aldi berean saiatu gara biltzen hainbat

informazio lagungarri jolas hauen inguruan.

8-12 urteko ikasle guzti-guztiak daukate bideo jolasen bat eskura, gehienak bere gurasoen, mugikorrean. Eskuzko tresnetan, Nintendo DS eta halakoetan berriz, ikaslegoaren erdiak dauka aukera jolasteko. Telebistari eta halakoei erantzen zaizkion bideojokoak 10etik bik dauzkate eta horien artean Wii eta halakoak gutxi batzuk dituzte eskura. Dena den, gure artean gutxiak erabiltzekoak ordenagailuetan deskargatutakoak dira eta telebistako jolasetan hobeto pasatzen dutela esaten dute. Badira ere, gelakideen artean oso gutxitan erabiltzen dutenak.

Bideojokoetan pasatzen dugun denborari dagokionez, astean eta ikastola garaian (irailtik ekaina bitartean),

batzuek beste 5 ordu aritzen dira. Denbora gehien pasatzen dutenak 7 ordu pasatzen dutelarik eta gutxiak 3 ordu. Egia esan, batzuek erraza egiten zaie uztea jolas mota hau eta beste batzuk aukera dutenean hartzen dituzte, eta kosta egiten zaie uztea. Gehienek gurasoekin hitzartzen dute astean zenbat denbora erabili eta noiz, nahiz eta batzuetan ez bete.

Erabilitako jolas motagatik galdetu dugu ere, eta interesen arabera banaketa ematen da. Kalaan ere, kirola edo mugimenduzko jolasak hauta-tzen dutenak bideojokoetan beste hainbeste aritzen dire. Bestalde, lasaia eta fantasiakoak, abenturazkoak edo estrategiakoak aukeratzeko dituzte beste ikastolakide batzuk aisialdian ere horrelakoak hart-

zen dituztenak. Dantza gustuko dutenak berriz, eta Wiian edo beste aplikaziotan ibiltzeko aukera badute horretan aritzen dira. Egia esan jolas mota aukeratzeko ez dago joragaririk.

Bideojokoaren historiaren kronologia eginda lehenengoak duela 70 urte sortu ziren eta gauza gehienak bezala hasieran ez zuten arrakasta handiegirik izan. 1970eko hamarkada arte, Arkade motako jolasak hasi ziren arte. Makina handi batzuk ziren eta tabernetan paratuta eta diru kopuru bat sartuta jolasten zen. Etxeetan ere jolasteko aukera bazen telebistara lotzen ziren bideo kontsoletan, baina hau gutxi batzuk omen zuten. Hamarkada bat pasa zen gaur egun ezagutzen dugun Nintendo eta Mario Bros eskuko bideo jolasak merkaturatu ziren arte. Mende bukaerarako garatu ziren 3D jolasak Super Nintendo eta Play Station eta haietan jolasteko jokoak. XXI. Mendean berriz, 2000. urtetik aurrera Nintendo edo PSPz gain Wiik ere izan du lekua gure etxeetan. 2017an, Nintendo Switch kaleratu zenean, ikaragarriko ilarak egon omen ziren New Yorken eta produktua ordu batzuen buruan agortu zen. Naiz gutxi izan Euskaraz ere baten batzuk ere hasi dira saltzen. ●

POEMA, LIBURUA, JOKOA

Poema

Ai bideojokuak / pantalla eta pantalla / artean jolasean / XXI. mendean / egun osoan Panthalaslean. / Bideojolasen artean / etxean. / Bitartean, / zergatik ez daude / futbolero edo kalean? / XXI / mundu bat / ume bakoitzeko bat / Zer izango da XXII?

'Diario de Nikki 10. Una cuidadora de perros con mala pata'

Rachel Renee Russell idazleak ederki paratu zion izenburua Nikki bere alabaren txakur zain-tzailearen abenturak kontatzeko. Letrak marrazteaz gain liburu-ko ilustrazio lanak ere idazleak egiten ditu. Ezaguna da *Diario de Nikki* bilduma idazteagatik. 10 urtetik gorakoentzat egokiak omen dira baina denak ez dira berdinak. Hori bai, nahiz oso irakurterazak eta politak izan, ale gehienek testu asko dute. Abenturazko liburu honetan gustatu zait aukeratu duten formatua, tapa gogorrekia, hizkia handia dauka eta erraz irakurtzen da. Marrazkiak berriz, ez dira gehiegi baina landuak dira. Abentura honetan, eta utziko dut zuek irakurtzeko, 7 txakur ezkatzen dizkie gurasoei eta institutuari...

'Dream league soccer 18'


Jolas honetan gure futbol taldea sortu behar dugu eta oso dibertigarria denez jolasteko aholku batzuk eman nahi dizkizuet. Materiala: Tablet edo mugikorra (android) eta *Dream League Soccer* deskargatuta izan. Pausoak: Lehenengo futbol taldearen ekipazioa eta kapitaina aukeratu behar duzu, izena jarri zure taldeari. Gero partiduetara joan behar zara. Orain nola jolasten den esango dizuet: B-rekin pase baxuak egiten dira, C-rekin zentroak eta baselina egiten dira, A-rekin txutak edo tiroak egiten dira. Truku bat ere esango dizuet bi aldiz pantailan klikatzen baduzue bizikleta egiten du jokalaria. Ondo pasa *Dream League Soccer*era jolasten.

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Astean zenbat ordu aritzen dira Arangoitiko ikasleak bideojokoetan?
2. Noiz sortu ziren bideojokoak?
3. Zein da Rachel Renne idazlearen bildumaren izena? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Hode Urmeneta (Jaso Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Oier Salgado (Paz de Ziganda Ikastola).
OSASUNA (6 sarrera): Argi Martínez (Lizarra Ikastola) Ibai Araiz (Lizarra Ikastola) eta Kepa Txokarro (Berbintzana Eskola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoru dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.